

DURANGO. Lurren ganeko eskubideak 75 urteko epea izango dau



AITZIBER BASAURI

Mikeldi-GEKUI eta Gurutze Gorriia hartzen dabezan eraikinak bota egin beharko dabez.

Uribarri Egoitzea handitzeko lanak zezeilean hasiko ditue

Aldundiari lurren ganeko eskubideak emotea erabagi dau Udalak

Aitziber Basauri |

Durango Uribarri Egoitzea handitzeko eraikin barria eregiten zezeila aldera hasi gura dauz Foru Aldundiak. Halantxe jakin eragin deus Durango Udalarari. Horretarako preminazkoa daukie, halandabe, azalerearen ganeko eskubidea Aldundiaren esku uztea; eta halan egitea erabagi barri dau Durango Udalak. Eraikin barria eregiteko gestino guztiak Bideak alkarte publikoak daroaz; beraz, horren esku lagako dabez 6.000 bat metro koadroko lur sailaren ganeko eskubideak. Horixe azaldu dau Pilar Ardanza alkateak.

Egoitzea handitzeko, baina, aurretik, Udalak hiru eraikin bota beharko dauz: San Vicente Paul ikastetxea hartzen eban eraikina — orain, Mikeldi-GEKUIren bulegoak dagoz bertan —, alboan dagoan Gurutze Gorriaren eraikina eta Uribarri Egoitzeko garbitokia dagoan eraikina. «Gabon ostean itxaroten doguz botatea», argitu dau Ardanzak. Mikeldi-GEKUIko bulegoak Pinondo Etxean izango dau behin-behineko lekua eraikinoko bota ostean.

Ardanzaren berbetan, «gertutuko dan orubearen ganeko eskubideak emongo deusaguz. Obrakaz hasteko preminazkoa

izan da figura juridiko hori erabiltea. Izan be, kontzesinoak ez dau balio». Udalaren ondare dana desafektetako emon behar izan dabe pauso hori. Txostenamartxan jarri ostean, orain erakunde bien ituna onartu beharko dau Udalak. Lurren ganeko eskubideak 75 urteko iraupena izango dau; edota eraikinak iraun artean. «Urte horreen ostean edo halan gertau ezker, aurretik, eraikina botaten bada, Udalaren eskura bueltauko dira lurroak».

Egoitza barria eregiteko 8.534.000 euroko inbertsinoa egitea itxaroten da; eta, eraikin barria 2004rako gertu egotea.

BERRIZ. Jokuak euskeraz erakusten deusiez eskolaumei barikuro

Gaztetxoengan euskerearen erabilera indartu guran dabilz

A.B. |

Berrizen martxan jarritako Euskerearen Plangintza Estrategikoaren barruan, gaztetxoaren artean euskerearen erabilera bultzatu guran ekimen barria ipini dabe martxan. LHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleak dihardue beharrean; gaztetxook jolastordu berezia izaten dabe, barikuro. Arrasateko Txatxilpurdi asti taldeagaz batera ipini dabe martxan ekimena, eta Larrreta-Markina ikastetxeko 80 bat umek parte hartzen dabe.

Txatxilpurdi asti taldeak jo-

kuak erakusten deusiez euskeraz eskolaumei. «Proiektua martxan ipini aurretik jolastorduetan dagoan euskerearen erabilerearen ganeko neurketea egin genduan, eta emoitzak nahiko eskasak izan ziran», Maitte Gerenabarrena Udaleko euskera teknikariak azaldu daue. Hori ikusita, euskerearen erabilera bultzatzea daukie helburu Euskerearen Plangintza Estrategikoan diharduenek.

Urte osoan luzatuko da ekimena. Eta, horren jarraipena egiteko ikastetxeko normalkuntza batzordeko arduraduna,

Udaleko euskera teknikaria, dinamizatzaileak eta Txatxilpurdi asti taldeko kideak batzen dira martitzenero. Ekimenaren jarraipena egiten dabe.

Begiraleekin beharrean

Begirale erdaldunek euskeraz jardun daien motibazio saioak be ipini barri ditue martxan; 10 bat begirale partehartzen dabe. «Hilean behin egiten dogu jarraipen batzarra. Bertan trebakuntza eta motibazioa lantzen ditugu», dino euskera teknikariak. «Begiraleek hartu emon zuzena daukie gazteak eta euskerearen erabileran eragin leikiela uste dogu. Ganera, euri be euskeraz jarduten laguntzen deute».

ELORRIO. Aho batez hartu dabe erabagia

Aldundiak lau foru errepide Udalaren esku laga daiezan eskatzea erabagi dabe

A.B. |

Elorrioko Udalak hainbat foru errepide Udalaren esku lagatea eskatuko deus Aldundiari. Horixe erabagi dabe udalbatzarrean aho batez.

BI-2632 errepidea, San Pio X — Gernikako Arbola plazatik Txitxirri ikastolarainoko tartea —, San Juan eta Julian Ariño hartzen ditua; eta BI-3321 errepidea, Errebonbilo, Urarka eta Berriz Olakueta Etorbideak hartzen ditua. Baita, BI-3331, Elizburu eta Urkizua-

ran — San Anton ermitaraino — hartzen ditua; eta, Mendraka auzorako bidea (BI-4314 errepidea). Foru errepide horrek Udalaren esku lagatea eskatuko dabe.

EAJ-EAren berbetan, «besteak beste, Julian Ariño kalea konpontzeko aukerea emongo dau horreek. Nahiko txarto dago eta hainbatean egin deuskue hori atontzeko eskaerea. Niko Moreno alkateak azaldu dau baita edozein obra aurrera eroateko gestinoa be errezago izango dabela holan.

LABURREAN

ZALDIBAR

Hizkuntza ez sexistearen ganeko ikastaroa emongo dabe udaletxean

Hizkuntza ez sexistearen ganeko ikastaroa emongo deusie udaletxeko beharginei Teresa Meanak, erromanika filologoak. Datorren astelehenean izango da ikastaroa eta beharginek eze politiko be parte hartuko dabe. Halantxe azaldu izan dau Nerea Garitagoitia alkateordeak. Lehenengo biderrez eratu dabe halako ikastaroa Zaldibarko Udalean eta Emakumearen Plangintza Operatiboaren barruan gertau dabe.

ABADIÑO

Umeendako jostailu tailerra eta gurasoendako berbaldia gertau dabez datorren asterako

Abadiño Kultura eta Kirola Batzordeak umeendako jostailu tailerrak eratu dauz datorren asterako. Hilaren 9an egingo dabe lehenengoa, Zelaietako herri eskolan; eta, hilaren 10ean, Matienako herri-eskolan. Gurasoendako, *Nola aukeratu jostailu egokia?* berbaldia be gertau dabe. Zelaietan astelehenean izango da, Kultur Etxean 15:15ean. Matienako herri-eskolan izango da martitzenean, 17:00etan.

AGENDA

DURANGO

Dantza: Grupo Folkloric d'es Born dantza taldeak (Menorka), Do Lusco o Fusco gaita eta dantza taldeak (Galizia) eta Durango Kriskitin dantza taldeak eskainiko dabe ikuskizuna, gaur, San Agustin kultur gunean. Kriskitinek eraturako *Durango Folk* egitarauaren barruan eskainiko daben saioa 20:00etan hasiko da. Sarrerea 4 euro.

Tailerra: Galiziako Do Lusco o Fusco dantza eta gaita taldeak, Artisau Azokan (Merkatu plazan), dantza eta musika tailerra emongo dau, 12:00etatik aurrera. *Durango Folk*-en barruan gertau dabe.

Dantza: Galiziako Do Lusco o Fusco eta Durango Txiri-txiri azokan 11:30ean; Artisau Azokan 12:30ean eta Andra Mari plazan 13:30ean.

Musika: Amaraun musika taldeak bere lehenengo beharra, *Amaraun*, aurkeztuko dau, bihar, San Agustinen 20:00etan.

Txotxongiloak: *Marrubizko printzesa* txotxongilo ikuskizuna eskainiko dau Gus

Marionetas taldeak, San Agustinen 12:00etan. Udal liburutegiak eratu dau.

Musika: Thebalde aldizkariaren jai ospatuko dabe, gaur, Atxo Fun-fun kafetabernan. Dj Makalak gauerdian.

Musika: R Ke R& Malsonado taldeagaz musika animazioa Sapuetxe gaztetxean 12:00etan; *Irrati libreak, atzo, gaur eta bihar* kafe-tertulua 17:00etan. Eta, 21:00etan, Trapatonen eta Ada+flow taldeak kontzertua. Bihar, Insulto al gobierno, Clocano eta Sindrome de abstinencia taldeak 19:00etan.

Musika: Kalte eta Biok musika taldeak, bihar, azokaren barruan 16:00etan.

ZALDIBAR

Erakusketea: Fidel Rasoren prentsa argazkiak udaletxe zaharrean. Zapatuan 16:00etatik 20:00etara eta, domekan, 10:00etatik 14:00etara.

ZORNOTZA

Erakusketea: Foto Solekoek argazkilariek osaturako *Erretratuek. 1947-1977* erakusketea Nafarroa Zentroan.